

Ryszard Kapuściński

ITZULTZAILEA – XXI MENDEAN EZINBESTEKOA

Itzultzailea: Amaia Donés Mendia

Zuzentzailea: Bego Montorio Uribarren

Hitzaldi hau prestatu eta emateko proposamena jaso nuenean, zalantzek eta egonezinek inguratu ninduten. Izan ere, ez naiz itzultzailea lanbidez, eta arlo honetan ez daukat ez esperientzia ez arrakastarik. Era berean, ez ditut literaturaren ikerketa zein teoria landu, eta ez naiz itzulpenaren arte aberats eta konplexuan aditua.

Hala ere, hemen, zuen aurrean agertzeko ausardia izan dut, hain zuzen, azpimarratu nahi dudalako une honetan, une jakin honetan, zeregin eta eremu berria sortzen ari zaiola itzultzaileari, eta horren lekuko izateko aukera dugula. Baliteke oraindik horretaz guztiz ohartu ez izana, baina momentua garrantzitsua da, eta arreta merezi du.

Literaturaren hierarkia tradizionalan, itzultzailearen tokia guztiz bazterrekoa zen: sarritan, ezagutu ere ez genituen egiten, haien izenak ez ziren aipatzen edo inisial soil batzuetara mugatzen zituzten, goitizenek ez bazituzten ordezkutzen. Salbuespen batzuk izan ezik, ezer gutxi edo deus ere ez dakigu itzulpenaren bidez Antzin Aroko, eta gero Erdi Aroko, literaturaren ondare eskerga gorde edota Europa kanpoko literatura aberatsa ekarri digutenei buruz. Gainera, denok ditugu gogoan itzultzailearen izena inon azaltzen ez dituzten XIX. zein XX. mendeko liburuak, eta ez naiz inolaz ere ari literatura merke eta traukilari buruz, baizik eta literatura eta zientzia liburuki garrantzitsuei buruz.

Joan den mendeko azken hamarkadetan hasi zen hobera egiten egoera, eta jada XX. mendeko azken urteetan ikusi ahal izan dugu aldaketa funtsezko eta arrakastatsua, zenbait faktoreren elkarreraginak bultzatua.

Hasteko, amaitua da Gerra Hotza, mende erdiz munduaren egoera izoztu duen gerra, eta, ondorioz herrien arteko harremanak, hizkuntzen artekoak barne, zaildu eta askotan ezinezko egin dituena. Behin amaituta, askoz irekiagoa dugu mundua, demokratikoagoa. Elkarri hurbiltzeko eta elkar ezagutzeko aukera gehiago dauzkagu, elkarri hitz egin eta solas egitekoak, iritzi eta usteak elkar trukatzekoak. Baina, era

berean, azkar konturatu gara hau guztia ez dela posible baldin eta norbaitek ez baditu hitzak eta pentsamenduak hizkuntza batetik bestera isurtzen: labur esanda, itzultzailek egongo ez balitz. Itzultzailea, hau da, elkarrizketa edo testua hizkuntza batetik bestera daraman hori, ezinbesteko baldintza bilakatzen ari da giza familiak elkartuta biziraun dezan.

Bigarrenik, lehen aipaturiko irekitze hori dela eta, hobeto ikusi eta sentitu ditugu munduaren aniztasuna eta konplexutasuna, eta hobeto jabetu gara bere kultura-aniztasunaz (baita horrekin lotuta doan eleaniztasunaz ere). Aspalditik dakigun kontua da, noski: Bibliaren garaitik, Babel dorrearen garaitik jakin izan dugu arazoa hor zegoela, eta ordutik egin dugu borroka hari aurre egiteko. Baina, XX. mendearen amaiera arte ez da sortu kultura eta hizkuntza aniztasunaren kontzientzia orokor bat, planeta mailako kontzientzia zabal bat.

Datuak itzelezkoak dira: XX mendearen hasieran sei mila hizkuntzatik gora genituen munduan, bi mila baino gehiago Afrikan bertan soilik, tribu bakoitzak, eta sarri herrixka bakoitzak, bere hizkuntzan hitz egiten baitu. Zergatik? Hizkuntzalariek luze hausnartu dute argitu nahian zergatik dituen gauza bakar batek, demagun zuhaitzak, hamarnaka, baita ehunka izen desberdin.

Hizkuntza nahaste hori ez da, Bibliaren arabera, giza irudimenaren aberastasunaren ikur, baizik eta Jainkoak bidalitako zigorra, kartzelaren moduan gizakia isolatu eta mugatzen duena. Banaketa eta isolamendu hori ez dute soilik norbanakoek pairatzen, baizik eta hizkuntza desberdinean jarduten duten komunitate eta herri guztiek. Ezintasun horrek, komunikazio falta horrek, baditu ondorioak, eta ez soilik linguistikoak, baita psikologikoak, eta sarri politikoak ere. Nahikoa da norbaitek nire hizkuntza ez jakitea, nik pentsa dezadan pertsona hori okerragoa edo behe mailakoa dela, arbuiagarria. Horixe gertatzen zen Antzinako Grezian. Garai hartako greziarrentzat beren hizkuntzan hitz egiten ez zuena “barbaroa” zen, hau da, ulertu ezineko hizkera motela zerabilena, ero baten modura zezeltzen zena. Eta eroa mehatxagarria izan daiteke, oldarkorra.

Horra nola bilaka daitekeen mesfidantza, beldur eta etsaitasun iturri hizkuntza bat ez jakitea, eta, azkenik gerra pizteko arrazoi. Zenbat gatazka ez ote diren gertatu historian

hizkuntzek eraginda, zenbat tragedia, biktima eta hondamendi! Baina, hala ere, Bestearen hizkuntza jakitea aukera da elkar ulertzeko, solas egiten hasteko, elkarlana sustatzeko.

Aipatutako egoera horietan guztietan ikusten dugu zer nolako pisua eta garrantzia duen hizkuntzen arteko komunikazioak eta, beraz, itzultzailearen eginkizunak; izan ere, lanbideak ezartzen dizkion zeregin eta beharrak gainditzen ditu haren lanak, ikuspuntu kultural eta sozialari dagokionez.

Hala ere, hizkuntzak ulertzeak gizakien arteko komunikaziorako funtsezko garrantzia duen arren, harrigarria da zenbat denbora, zenbat urte, baita mende ere kasu batzuetan, igaro daitezkeen lan bat jatorrizkoan argitaratzen denetik bere itzulpena heldu arte, nahiz eta elkarren ondoko herri eta kulturen obrak izan. Horrela gertatu zen, adibidez, Koranarekin, VII mendetik Europarekin harremana duten musulmanen liburu sakratuarekin. Horren garrantzitsua izanda ere, mila urte pasa behar izan ziren Europak Koranaren lehen itzulpenak (latinez eta ingelesez) jaso zitzaizkien. Horrela bada, mila urtez, Europak ez zuen eskura izan bere mugen bestaldean bizi zen zibilizazioa ulertzeko giltza, Korana horren baita oinarritzkoa; gainera, hori gutxi balitz, eskuratzeko inolako ahalegin berezirik ez zuen egin. Nola aldatu diren gauzak gure garaiotan! Ezinezkoa iruditzen zaigu hainbesteko atzerapena!

Eta orain, gaur egun, mundua ireki denetik, eskuragarriagoa zaigunetik eta zabaldu egin denetik kultura aniztasunaren baita eleaniztasunaren kontzientzia, komunikazio iraultza handia ari da gertatzen. Iraultza elektronikoak aukera eman digu bata bestearengandik hurbilago egoteko, eta, gainera, modu orokortuan eta abiadura azkarrean. Testuinguru honetan, beste askotan bezalaxe, itzultzailearen irudia agertzen zaigu lehen planoan. Denek joko dute harengana, bera gabe ezinezkoa baita elkarrizketa, ezagutza eta elkar ulertzeko aukera oro.

Gauzak horrela, aparteko garrantzia du testu itzultzaileak, literatur itzultzaileak, gure zibilizazioa –irudiari eta soinuari garrantzi handia eman arren– testuen zibilizazioa baita, idatzitako eta inprimatzean finkatutako hitzarena.

Begi bistakoa da bizi garen planeta honetan aldaketa azkar eta sakona gertatzen ari dela; hizkuntzen mundua azelerazio lege berdinek gidatzen dute. Sekula inon idatzi ez diren hizkuntza asko, ehunka, milaka ez esatearren, desagertu eta oraindik ere desagertzen ari dira, iraungitzearen fenomeno hau ez baita inoiz gelditzen eta hizkuntza horien eramaileak, tribuak eta klanak, hil egiten direlako. Batez ere klima bero eta tropikalak dituzten eremuei eragiten die arazo honek. Klima epela eta hotza duten eremuetako hizkuntzek bizitza luzeagoa dute. Aspaldi, Europan ezezagunak ziren hizkuntza horiek idatziaren bidez finkatzen zituztenak misiolariak izaten ziren, baina gaur egun gero eta gutxiago dira, eta beraz Kongoko oihanetan eta Amazoniako basoetan hizkuntza txikiak desagertzen ari dira arrastorik utzi gabe.

Beste hainbat arlotan bezala, hizkuntzen munduan ere kontrako bi joerek hartzen dute parte. Alde batetik, joera bateratzailea dugu, berdintzailea, gero eta jende gehiagok gero eta hizkuntza gutxiagotan hitz egitea helburu duena. Gaur egun, joera hori bultzatzen duten hizkuntza dinamikoenak ingelesa, txinera eta espainiera dira. Agerian dago, beraz, nola ekonomia indartsu batek eragina duen hizkuntzaren estatus eta garrantzian.

Kontrako korrontearen helburua da nazio, etnia eta eskualde orotako hizkuntzak sustatu, indartu eta garatzea. Joera horrek, zenbaitetan, bizitasun handia erakutsi du. Frantzian, eskualdeko sei hizkuntza daude borrokan eskubide berdintasuna lortzeko, Espainian euskara, katalana eta galizierarekin gertatzen den antzera, kitxua eta aimararekin Perun eta Bolivian, berberearekin Magrebeko herrialdeetan edo hausarekin Nigerian. Dozenaka, ez badira ehunka adibidek erakusten digute txikiak diren baina era berean anbizio handia duten hizkuntzen kemena. Hitz egiten dituzten komunitateek garrantzi handia ematen diote hizkuntza horien garapen eta dinamikotasunari, eta edozein kostu material ordaintzeko prest daude helburua lortzeko.

Zenbaitetan, egoera guztiz bitxiak jazo izan dira. Armeniak, 1990. urtean, SESBeko kide izateari utzi eta independentzia aldarrikatu zuenean, eskoletan errusieraz egiteari uztea erabaki zuen eta irakaskuntza armenieraz ezarri zen, nahiz eta gero, bigarren mailako eskoletan eta unibertsitateetan umeek ezingo zuten heziketa hizkuntza horretan jarraitu. Eta, hala ere, gizarteak bere hizkuntzaren inguruko euforia garai hori igaro behar izan zuen, emozio guztiak lasaitu eta erabaki errealistagoak hartzen hasteko.

Hizkuntza bereziki da garrantzitsua eta baliotsua hitz egiten duen komunitatearentzat, eta, horregatik, muturreko zenbait egoeratan, jendea bere bizitza emateko gai da hizkuntzaren aldeko borrokan. Gaur egun, horren adibide argiak ikus ditzakegu Indian, Pakistanen eta baita beste hainbat herrialdetan ere. Egindako bidaietan, ni neu konturatu naiz behin baino gehiagotan zer nolako garrantzia duen tokiko jenderentzat beraien hizkuntzan hitz gutxi batzuk ikasten saiatzeak. Orduan, ate guztiak zabaltzen dira, eta segituan sentitzen da gonbidatua bere etxean. Izan ere, bertako hizkuntzan zerbait esaten saiatzen garenean, gonbidatzen gaituenarenganako errespetua azaltzen dugu, merezi duen duintasuna aitortzen diogu. Hizkuntza kultura baten altxorrik handiena da, eta, era berean, nortasunaren ikur nabarmen eta adierazgarriena.

Guzti hori aipatu dut azpimarratu nahi dudalako itzultzaileak tentuz eta arreta handiz jokatu behar duela jorratzen duen arloa lantzean, hizkuntzarako ikusmen eta belarri zorrotza izateaz gain, gustua, hizkuntza sena eta memoria onak izan behar dituela. Behar-beharrezko ezaugarriak dira, batez ere itzultzaileak lantzen dituen hizkuntzak etenik gabe ari direlako aldatzen, eraldatzen, beti daudelako mugimenduan, eta batak bestea aberasten duelako, garatu egiten direlako, eta hitzek zentzu zein esanahi berriak hartzen dituztelako. Ezinbestekoak dira esperientzia, arreta handiz jokatzeko eta gustu ona testuak bere ezkutuko geruzetatik igortzen dizkigun seinaleak, bere barrenbarrenetik ateratakoak, harrapatu eta irakurtzeko!

Baina, gaur egun, itzultzailearen eginkizuna ez da besterik gabe testu batetik beste bat sortzea, hizkuntza batetik beste batera itzultzea. Egile gisa, beti sentitu izan dut itzultzailearen asmo ona eta zenbait modutara emandako laguntza. Izan ere, itzultzailea agente literarioa ere badela esan daiteke, egilearen enbaxadorea, haren lanaren mireslea, argitaratzaileei proposamenak egiten dizkiena, komunikabideetan idazleari buruzko kritikak idatzi eta gomendioak ematen dituena. Hau da, modu zabalean esanda, itzultzailea “bere” egileen literaturan aditua eta kritikoa da. Bai, herrialde batean itzultzaile finko eta ezagun bat izateak babes eta lasaitasun sentipen handia ematen dio idazleari. Horregatik izan ziren guretzat hain mingarriak duela gutxi gure Holandako eta Errusiako lagun eta itzultzaileen heriotzak, Gerard Raschena eta Sergei Larinena.

“Nire itzultzailea”, “nire egilea”: berebiziko garrantzia du zuzeneko harreman eta laguntasun mota horrek, eta, denborarekin bi aldeen arteko lotura sendotu dezake. Niretzat oso garrantzitsua den eskarmentuari esker ikasi dut hori. Bestalde, itzultzailea idazle baten irakurle eta erredaktore garrantzitsuena da: zenbat aldiz bidali izan dizkidaten gutunak nire testuetan aurkitutako zehaztasun ezak eta akatsak azalduz! Egia esan, esker ona adierazteko aipatzen ditut hemen.

Itzultzailearen enbaxadore rol horrek garrantzi berezia du indartsuenak ez diren hizkuntzetako literaturei buruz, ezagunenak ez direnei buruz, ari garenean. Itzultzailea zenbat tematzen den eta konbentzitzeko zenbat indar duen erabakigarriak dira bere egilea merkatu batean ager dadin ala ez. Eta, gaur egun, ez da gauza erraza merkatu berri batean sartu eta bertan toki iraunkorra lortzea: betiko lehiaz gain, herrialde gehienetako joera atzerriko liburuekiko atea ixtea da, ireki beharrean. Hilabete honetan (2005eko maiatzean) Munduko Idazleen Foroan parte hartzeko aukera izan dut, Estatu Batuetako Pen Clubak antolatu zuen New Yorken. Izan ere, Pen Clubeko kideek foroa sustatzeko arrazoia kezka batek eragin zuen: gero eta gutxiago irakurtzen direla Estatu Batuetan atzerriko egileen liburuak. Gaur egun, herrialde horretan saltzen diren liburu guztien artean ehuneko bi baino ez dira Estatu Batuetakoak ez diren egileenak (Europako liburuei ixten zaien beste merkatu handi bat Txinakoa da). Eta beraz, gertakari kezkarri horiek ere astintzen dute liburuen mundu anitz eta aldakorra.

Polonieraz “itzuli” aditzak bi esanahi ditu. Hala ere, bi esanahien arteko bateragarritasun semantikoa oso esanguratsua da, munduko kultura-aniztasunean erabat bereizgarri eta adierazgarria gaur egun.

Errepara diezaiogun horietako lehenari. Testu bat itzultzen duena, literatura itzultzen duena, liburuak itzultzen dituena, zentzu horretan ulertutako “itzultzailea” “eramailea” da Linde-ren hiztegiaren arabera. Itzultzean, hau da, hizkuntza batetik bestera eramatean, bi aldeen arteko harremana zehaztua dago, eta interpretatzeko garaian hartu daitekeen askatasuna mugatua eta aspalditik polemikoa eta eztabaidatua da: zerk du indar handiagoa, letrak edo espirituak? Nola zehaztu batak bestearenganako proportzioa eta menpekotasuna? Non aurkitu oreka? Zein da konponbide onena? Aspaldi hasi zenuten arazo honen aurkako borroka zuek guztiok, itzuli zenuten lehenengo esaldiarekin.

Hala ere, bigarren adieraren arabera, aurrekoa baino zabalagoa eta Karłowicz-ek emandakoa, “itzultzeak” “azaltzea” esan nahi du, “interpretatzea” baina baita ere “jakinaraztea”. Adiera horrekin ulertzen dugu, hain zuzen, gaur egungo itzultzailearen erantzukizun garrantzitsua gure munduko kultura aniztasunean: itzultzean gainerakoien literatura eta kulturak ezagutarazten dizkigu, Bestearen existentziaren berri ematen digu, haren izaera berdingabe eta errepikaezina adierazten digu, gizakiaren familia handiko kide garela gogorarazten digu, eta, beraz, familia hori mantentzeko elkarren arteko ezagutza handiagoa, onarpena eta elkarbizitza, beharrezkoak direla esaten digu.

Zentzu horretan, testu bat itzultzean Besteei mundu berri bat irekitzen diegu, zertan datzan azaltzen diegu, eta azalpen hori ematean hurbiltzeko aukera ematen diegu, beraiekin mundu horretan egotekoa eta nor bere esperientziaren parte egitekoa. Beraz, itzultzailearen ahaleginari esker, pentsamenduaren mugak zabaltzen zaizkigu, gure ulermen maila handitzen dugu, gure jakituria zabaltzen da, gure sentiberatasuna berpizten da.

Gaur egun, XXI. mendean, hau guztia bereziki da garrantzitsua, hain azkar garatzen, desberdintzen eta aldatzen den gure mundu honek itzulpen eta azalpen lan etengabea behar baitu; literatura itzulpenak azalpen lan honetan laguntzen du. Beraz, hemen zaudeten guztion lana behar du XXI. mendeko munduak. Egungo itzultzailearen lanaren dimentsio zabalagoa eta zentzu berria da hau. Hain zuzen, itzultzaileari esker hel daitezke egileak edonora, eta irakurlea ordura arte eskurazina zitzaion lurralde eta herrietan sar. Denok dakigu, gainera, zein neurriraino den itzultzailea itzulitako liburuaren egile eta zenbateko aukera duen liburu batek lurralde jakin batean agertzeko: itzultzaileari esker baino ez du lortuko. Horregatik, beti eskertuko dizuegu zuen lana, bai irakurle gisa, bai idazle gisa. Eskerrik asko zuei guztioi!

*Krakovian 2005eko maiatzean aurkeztutako testua, Liburuaren Institutuak antolatutako Literatura Poloniarraren Itzultzaileen Nazioarteko Lehen Kongresuan.*